

Kristau Eskolari,

Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako patronal nagusia

Greba amaierako akordioa 2024ko otsailaren 6an sinatu genuen sindikatuok zein Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalek. Urtebete pasa da akordioa sinatu genuenetik, eta hitzarmenik gabe jarraitzen dute sektoreko 9.000 langilek. Hau, Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalen fede txarra eta utzikeriaren ondorioz.

Sindikatuak epaitegietara joatera behartu gintuzuen, sektoreko langileek adostutako soldata igoerak kobratu ahal izateko. EAeko Auzitegi Nagusiaren epaia argia da. Greba amaierako akordioa indarrean dago, soldatak ordaindu behar dira eta akordioa bete behar da.

Akordioak jasotzen duen agindu bat da bere edukiak hitzarmen batean jasoko direla.

Azken Mahai Negoziatzailea urtarrilaren 10ean ospatu behar zen, baina bertan behera utzi zenuten osasun arrazoiak medio. Jadanik otsailean gaude. Sindikatuok beste data bat jartzeko eskatu genizuen arren, ez dugu atzo arratsalderarte deialdi berririk jaso.

Hau guztia kontuan hartuta, idatzi honen bitartez ondorengo eskatzen dikizuegu:

1. Mahaian eta greba amaierako akordioa hitzarmenean txertatzeko prozesuan erakutsi duten fede txarra alboratzeko
2. Greba amaierako akordioa hitzarmenean txertatzeko borondatea erakutsi dezazuela, adostutako baldintzetan eta luzapen gehiagorik gabe. Bada garaia urte bete ondoren hitzarmena sinatzeko.
3. Berehala negoziazio mahaira akordioko edukiak jasoko dituen hitzarmen proposamen bat aurkezteko. Sindikatuok aspaldi bidalita dugu balizko proposamena.

Donostin, 2025eko otsailaren 6an

ELA-STEILAS-CCOO-LAB-UGT